

CIBOURE



2011ko urtarrilaren 14an

HERRIKO KONTSEILUKO  
Jaun-Andere Kideak

Réf. : JMB/MHM - 90/2011

**2010eko ABENDUAREN 15ean, ASTEAZKENArekin  
18:00etan HERRIKO ETXEAN IZAN DEN HERRIKO  
KONTSEILUKO  
TXOSTENA**

**BERTAN ZIREN**: POULOU Jauna, Auzapeza, LOLOM Jauna, DUBARBIER Anderea, BERLAN Jauna, DOSPITAL-GHOSSOUB Anderea, LALANNE Jauna, WATIER DE CAUPENNE Anderea, MACHENAUD Jauna, MINTEGUI Anderea, HIRIART Jauna, IDIARTEGARAY-PUYOU Anderea, ANCIZAR Anderea, IBARLOZA Jauna, CAPDEVILLE Anderea, GOUAILLARDET, ANIDO Jaunak, HARDOY, GLOAGUEN, ORIVE Andereak, GOURAUD Jauna, BAZERQUE Anderea, MINTEGUI Jauna, DUGUET Anderea, MADRID Jauna.

**AHALORDEAK**: COSTE Jaunak DOSPITAL Andereari, UGARTEMENDIA Andereak LOLOM Jaunari, TAPIA Andereak MINTEGUI Jaunari.

**BARKATUAK**: URBISTONDOY, ERRANDONEA Jaunak.

**BERTAN ZEN**: BORDENAVE Jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Orokorra.

-----

2010eko abenduaren 8ko deialdia.

Guy POULOU, Auzapez Jaunaren lehendakaritzapean.

**GAI ORDENA:**

**I/ Gai orokorrak**

- 1/ 2010eko agorrilaren 26ko Herriko Kontseiluko bilkuraren txostenaren onarpena,
- 2/ Herriko Kontseiluaren ordezkartza Auzapezari (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua),
- 3/ ZPPAUP: Ondarearen Fundazioarekin Hitzarmena,
- 4 / Bizilekuaren 64 Erakundea: Partaidetza hitzarmena,

- 5 / P.A.-etako Departamenduko Elekrika Sindikatuaren txostena,
- 6/ Eskoletako garraio zerbitzu bat plantan jartzea: Gaitasun ordezkari-tza eskaera,
- 7/ Sokoako hondartza: Zaintzarako hitzarmena
- 8/ Eremu Publikoaren okupazioa: la Tour karrika,
- 9/ Bide Prebentzio Ekintza: Partaidetza hitzarmena,
- 10/ Herriko Etxeak Barrikenea karrikan lur-zati erosketa asmoa,
- 11/ Baionako Merkataritza eta Industria Ganbara: Récollets-etako herriko jabetzaren parte baten salmenta.

## **II/ Finantzako gaiak**

- 1/ Ziburu/Senpereko Tennis kluba: Diru-laguntza eskaera,
- 2/ UR YOKO: 2010 urterako diru-laguntza eskaera,
- 3/ Donibane Lohizuneko turismo bulegoa: Diru-laguntza eskaera,
- 4/ Integrazio Batzordea: Diru-laguntza eskaera,
- 5/ Liburutegiko obren salmenta: Téliéthon-i dohaintza,
- 6/ Auzapezen kongresua: xahutzeen ordainketa,
- 7/ 2010eko udaberriko ibilaldian partehartzea,
- 8/ Onarpena ez balioetan,
- 9/ Gazte arloko aitzinkontua; 1. erabaki aldatzailea,
- 10/ Aitzinkontu nagusia: 2. erabaki aldatzailea,
- 11/ Inbestizamendu kredituen laurdenaren irekitzea,
- 12/ 2011ko jatorrizko aurrekontua: diru laguntza aurrerakinak,
- 13/ Leku, bide, iragarki era aparkatze eskubideak
- 14/ 2011ko herriko prezio orotarikoak,
- 15/Urteko gida praktikoaren tarifa,
- 16/ Herriko Aldizkaria : Iragarkien prezioak,
- 17/ Ostatatzerik gabeko Aisialdi Zentroak : 2011ko prezioak,
- 18/ Eskoletako jantegiak: 2011ko prezioak,
- 19/ 2011ko Egonaldi Zergaren prezioak,
- 20/ Haurtzaindegiaren prezioak,
- 21/ Hondartzako klubaren prezioa,
- 22/ Haurtzaindegia eta O.G.A.Z: C.E.S.U. (E.T.Z.U.)-ren bitartezko ordainketa

## **III/ Herriko Etxeko langileak**

- 1/ Gradu aitzinamendu ratioen zehaztapena,
- 2/ Gradu aitzinamenduak – Postuen bilakaerak,
- 3/ Denbora Aurrezpen Kontuaren irekitze, ibilmolde, kudeaketa, erabiltze eta hesteko arauak,
- 4/ Enplegu lagundu baten sortzea,
- 5/ Herriko haurtzaindegia – Mediku koordinatzailearen lanaldiak,
- 6/ Herriko haurtzaindegia – Pedopsikiatraren lanaldiak,
- 7/ Zentsurako agente kontratatzea.

## **IV / Zerbitzu Teknikoak**

- 1/ Merkatu publikoa: Deialdi publikoa herriko bideen konponketarako 2009tik 2011ra,
- 2/ Ziburuko Herria / Ithurri Alde SCI trukaketa.

## **V/ Orotariko gaiak**

Pierre BERLAN jauna saioko idazkari izendatua da.

-----

## I/ Gai Orokorrak

### **1) 2010eko agorrilaren 26ko herriko kontseilu saioaren bildumaren onarpena**

2010eko agorrilaren 26ko herriko kontseilu saioaren bilduma aho batez onartu du Herriko Kontseiluak

### **2) Herriko Kontseiluaren ordezkaritza Auzapezari (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)**

Ordezkaritza honi esker, ondokoak izenpetu ahal izan dira:

- TOKIKO ARRANTZEN BATZORDEAekin hitzarmen bat lokal bat urririk honi uzteko Récollets-en baitan, 2010eko agorrilaren 10ean, 2010eko agorrilaren 1etik 2011ko uztailearen 31ra arteko garaierako (isilbidezko luzapen baten bitartez berriztagarria, 2012ko urtarrilaren 31 arte);
- ILARGI Elkartearekin hitzarmen bat lokal bat urririk honi uzteko Okineta karrika itsuan, 2010eko agorrilaren 26an, 2010eko apirilaren 1etik 2011ko ekainaren 30era arteko garaierako;
- MARINELA eskolarentzat, PEP-ekin kanpoko egile baten bidez prestatu apairuak banatzeko lokal bat urririk uzteko hitzarmena, 2010eko agorrilaren 26an, 2010eko irailaren 2tik 2011ko abenduaren 17ra arteko garaierako;
- MARINELA eskolarentzat, Sokoako PEP Zentroko langileria eskaintza hitzarmena, 2010eko agorrilaren 26an, 2010eko irailaren 2tik 2011ko abenduaren 17ra arteko garaierako;
- POP ENGLISH CREATIONS Elkartearekin hitzarmen bat A. BRIAND Eskolako lokal batzuk erabiltzeko, 2010eko irailaren 18an, 2010-2011 urterako;
- Estatuko segurtasun indarrak eta ZIBURU eta URRUÑAko Herrizaingoan arteko koordinazio hitzarmen bat, 2010eko ekainaren 3an, Suprefeturan onartua 2010eko irailaren 20an;
- ITSAS BEGIA Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- CERCLE DE RELIURE D'ART Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- COMPAGNIE DES SYRTES Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;

- EARTHDANCE SYRTES Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- ARMIARMA Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- CIBOURE A LA CROISEE DES CULTURES Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- PEÑA ALMONTE Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- LUNA FLAMENCA Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- URKIROLAK SECTION KEMPO KAY Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- Jean René GACHERIEU Jaunarekin Sokoia/Untxin hondartzan den M.N.S. lokaleko aldagelak urririk erabiltzeko hitzarmen bat, 2010eko urriaren 11n, 2010eko urriaren 18tik 2011ko maiatzaren 20ra arteko garaierako;
- ZIBURU EUSKALDUN Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31 arteko garaierako;
- CIBOURE EN HARMONIE Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31 arteko garaierako;
- Mirentxu LONDAITZ Andereñoarekin (tours à poney) Jean Poulou Kirol Zelaian lurzati baten behin-behineko okupazio hitzarmen bat, 2010eko urriaren 18an, 2010eko urriaren 1etik 2011ko irailaren 30era arteko garaierako;
- PATCH Y COUD Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- AIKIDO YOGA 64 Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkartearen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;

- CIBOURE CITE D'ARTISTES Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkarteen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- ARCAD KARAS CALLIGRAPHIE Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkarteen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- SENS ET MOUVEMENT Elkartearekin hitzarmen bat gela bat urririk honi uzteko Roger Berné Elkarteen Etxean, 2010eko irailaren 21ean, 2010eko irailaren 1etik 2012ko agorrilaren 31ra arteko garaierako;
- GAZTEEN GERORAKO ORDEZKARITZAarekin hitzarmen bat gela bat urririk Gazte Informazio Guneari uzteko, 2010eko urriaren 22an, bi urteko garaierako, 2010eko irailaren 1etik goiti;
- Lan kontratu baten ezerezte (DELAS Medikua) dakarren kontratua, 2010eko azaroaren 4an, Suprefeturan 2010eko azaroaren 16an onartua;
- UNION NATIONALE DES COMBATTANTS (U.N.C.) hitzarmen bat lokal batzuk urririk honi uzteko Aristide BRIAND Eskolan, 2010eko azaroaren 18an, 2010eko urriaren 20tik 2012ko urriaren 19ra arteko garaierako;

### 3) **ZPPAUP: Ondarearen Fundazioarekin hitzarmena**

#### **Txostengilea: LALANNE Jauna**

ZPPAUP-aren aldaketa prozeduraren baitan, harremanetan sartu gara Ondarearen Fundazioarekin. Azken honek, ZPPAUP perimetroan sartzeko diren etxebizitzeko fatxadetako obren prezioaren %1 beregain hartzeko Ziburu Herriaren engaiamendua aipatzen zuen partaidetza hitzarmen bat adostea proposatu zuen.

Hitzarmen hau 2006an izenpetua izan da eta 2010eko abenduaren 31n bukatzen da.

Auzapez Jaunak hitzarmen hau 5 urteko epera luzatzea proposatzen du, erran nahi baita 2011ko urtarrilaren 1etik, 2015eko abenduaren 31 arte.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- partaidetza hitzarmen hau, 2011ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra berritzea **ERABAKITZEN DU**.

## AHO BATEZ ONARTUA

### 4) Etxebizitza 64 Erakundea: Partaidetza hitzarmena.

#### **Txostengilea: Auzapez Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die 2010eko agorrilaren 26ko deliberoaren ondorioz, erabakia izan zela partaidetza hitzarmena izenpetzea Etxebizitza 64 Erakundearekin, alokairuzko 12 bizitegi sozial eraikitzeko Socoa – Untxin auzotegian.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die erakunde honetako Lehendakariak, 2010eko azaroaren 9ko gutun baten bidez jakinarazi diola akats material bat sartu zela hitzarmen testuan eta komeni zela honen ezeztatzea eta hitzarmen berri bat aurkeztea Herriko Kontseiluari.

Ondorioz, komenigarria litzateke Herriko Kontseiluak 2010eko agorrilaren 26ko lehen deliberoa ezezta dezan eta beste bat idatz dezan ondoko hitzekin:

« Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Etxebizitza 64 Erakundeak partaidetza hitzarmen egitasmo bat helarazi diola alokairuzko 12 bizitegi sozial eraikitzeko Ziburun, Florentino Goicoechea karrikan kokatua den lur-zati batean (2 100 m<sup>2</sup>-ko superfizie ingurukoa), AD 89p. kalastra lursailan.

Egitasmo sozial honen arabera, 12 etxebizitza sozial eraikiko dira eta honelakoak izanen dira:

- 4 T2,
- 4 T3,
- 4 T4.

Ziburu Herriak 48 969,12 euro ordainduko lituzke, operazioaren kostu-prezioaren %3 gisa (PLUS eta PLAI), honi %20 kendu beharko zaiolarik, Hego Euskal Herriko Herri Elkargoko diru partehartzea baita.

#### Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Herriko Kontseiluak 2010eko agorrilaren 26an hartu lehen erabakia **EZEZTATZEN DU**,
- Partaidetza hitzarmena aurkeztua izan den bezala eta finantzatze aitzin-plana **ONARTZEN DITU**,
- Auzapez Jaunari hitzarmena aurkeztua izan den bezala izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

## AHO BATEZ ONARTUA

## 5) P.A.-etako Departamenduko Elektriika Sindikatuaren txostena

**Txostengilea: MACHENAUD jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die P.A.-etako Departamenduko Elektriika Sindikatuak 1995eko otsailaren 2ko 95-101 legearen arabera burutua izan den txostena helarazi diola, publikoak honen berri izan dezan.

Azalpen honen ondotik, Herriko Kontseiluak:

- P.A.-etako Departamenduko Elektriika Sindikatuak helarazi zerbitzu publikoaren kalitate prezioari buruzko txosten horretaz **AKTA EGITEN DU**

**AHO BATEZ ONARTUA**

## 6) Eskoletako garraio zerbitzu bat plantan jartzea: Gaitasun ordezkari-tza eskaera

**Txostengilea: DUBARBIER Anderea**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei azaltzen die eskoletako garraio zerbitzu bat plantan ezarri nahiko lukeela, eskola kontseiluen kari ikasleen gurasoek egin eskaerari erantzuteko gisan.

Zerbitzu hau sozietate berezitu bati eskaintzen ahal zaio, eta hiri barnetik urrun diren auzotegiak, Santa Gurutze eta Soko, lotuko lituzke, geldiune desberdinekin ibilbidean.

Auzapez Jaunak beraz, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrengana jotzea proposatzen du dagokion gaitasun ordezkari-tza bat eskatzeko.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez Jaunari, « eskoletako garraio » gaitasun ordezkari-tza bat Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreari eskatzeko **BAIMENA EMATEN DIO.**

**AHO BATEZ ONARTUA**

Oharrak:

DUGUET Anderea: « Zertan da eskolaren ikuskapen txostena? »

Auzapez Jaunak adierazten du ikuskapen txostena abendu bukaeran ezagutua izanen dela.

## 7) Sokoako hondartza: : Zaintzarako hitzarmena

**Txostengilea: BERLAN Jauna**

Auzapez Jaunak, Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu komeni dela, 2010 urterako, Soko / Untxin hondartzaren zaintzarako langileriari dagozkion fresak itzultzeari buruzko hitzarmen bat izenpetzea, ZIBURUko hiria eta Untxineko Baxe Haranaren antolaketa eta Ziburu eta Urruñako Bideetako Herriarteko Sindikatuaren artean.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- hitzarmen egitasmo honi buruzko aldeko iritzia **EMATEN DU**,
- Auzapez Jaunari delako hitzarmena izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

## 8) Eremu Publikoaren okupazioa: la Tour karrika

**Txostengilea: LALANNE Jauna**

Auzapez Jaunak oroitarazten du, 2004ko agorrilaren 19, 2006ko uztailaren 18 eta 2008ko otsailaren 24ko deliberoen ondorioz, Herriko Kontseiluak FOULON Jaunari eskailera bat ezartzeko eta Herriko Eremu Publikoan, la Tour karrikan, atarte bat irekitzeko baimena eman diola.

Herriko Kontseiluak, delako Herriko Eremu Publikoaren okupaziorako hitzarmen izenpetzea baimendu du ere, bai eta honen bi urterako luzapena. Auzapez Jaunak zehazten du hitzarmen hau 2010eko agorrilaren 19an bukatu dela.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** Herriko Eremu Publikoaren okupaziorako hitzarmen hau bi urtez luzatzea, diru baldintza berdinetan, erran nahi baita 60 euroko urteko eskubide finkoa, TP01 nazio indizea segituz berrikusiz.
- Auzapez Jaunari delako hitzarmena izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

## 9) Bide Prebentzio Ekintza: Partaidetza hitzarmena

**Txostengilea: BERLAN Jauna**

Auzapez Jaunak, Ziburu, Donibane Lohizune, Getaria, Senpere eta Urruñaren artean, beraien lurraldeetako haurrenganako Bide Prebentzioari sensibilizatzeko sina daitekeen partaidetza hitzarmena azaltzen die Herriko Kontseiluko kideei.



Ziburu Herriaren diru mailako partehartzea 2 257,99 eurokoa daiteke. Hau, hunkituak diren hirien bizilagunen kopuruaren proratan kalkulatua delarik.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Hitzarmen egitasmo hau **ONARTZEN DU**,
- Auzapez Jaunari delako hitzarmena izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

Oharra:

DUGUET Anderea: « Zergatik ez da ekintza hau CCSPB / EHHHEko lurralde mailan aurreikusia izan? »

Auzapez Jauna: aitzin aipatu herri hauek baizik ez dute ekintza horretan parte hartu nahi izan.

### **10) Herriko Etxeak Barrikenea karrikan lur-zati erosketa**

**Txostengilea: LALANNE Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Ziburu Herriak, LASSALLE indibisioari 42. AH kalastratu 5 zentiarako lur-zatiko parte bat eros dezakeela, euro sinboliko baten truke.

Erosketa honi esker, Barikenea karrika eta Ithurrichua landabidearen angeluko zirkulazioa eta segurtasuna hobetuko genituzke.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** lur-zati hau erostea,
- Auzapez Jaunari dagokion akta eta dokumentu oro izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

### **11) Baionako Merkataritza eta Industria Ganbara: Récollets-etako herriko jabetzaren parte baten salmenta**

**Txostengilea: Auzapez Jauna**

DUGUET Andreak delibero honen gibelapena eskatzen du, gai hau ez dela Hirigintza Batzordean aipatua izan argudiatuz.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die « Aile Est (Ekialde Hegala) » deitu Récollets-etako herriko jabetzaren parte bat Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrari saldua izan behar zitzaiola, arrantzako profesionalei etxebizitza berri bat eskaintzeko.

Eremuaren zerbitzuen 2010eko maiatzaren 20ko iritziaren ondorioz, salmenta prezioa 400 000 eurotan finkatua izaten ahal zela.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu ororen buru, Baionako Merkataritza eta Industria Ganbarak duela zuzenki jabetza horren zatia erosiko.

Auzapez Jaunak zehazten du C.C.I. / M.I.G.-ak 2010eko urriaren 1ean burutu osoko bilkuran Récollets-etako « Aile Est » delakoa 400 000 eurotan erosteko hartu erabakiaren kopia bat helarazia izan zaiola.

Auzapez Jaunak zehazten du salmenta aktan agertu beharko dela, saldu eraikinaren zatia, arrantzako profesionalentzat baizik ez dutela erabiliko, eta hauentzat bakarrik.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Eremuaren zerbitzuek 2010eko maiatzaren 20an agertu estimazioaren arabera, gorago azaldu baldintzetan, Récollets-etako « Aile Est » delakoa Baionako Merkataritza eta Industria Ganbarari 400 000 eurotan saltzea **ERABAKITZEN DU**,
- Auzapez Jaunari salmenta akta eta dagokion dokumentu oro izenpetzeko **BAIMENA** ematen dio,
- Donibane Lohizunen notario den Maître PAOLIren bulegoa, salmenta akta honen idazteko **IZENDATZEN DU**.

DUGUET, BAZERQUE, TAPIA Andereek, GOURAUD, MINTEGUI, MADRID Jaunek kontra bozkatzen dute.

## ONARTUA

Oharrak:

DUGUET Anderea:

*« Eskatzen dugu delibero hau gibelatua izan dadin, hirigintza batzordeak ez duelako dozier hau aztertu.*

*Ibilmolde arau sinpleen errespetatzea eskatzen dugu, hirigintza batzordeak **salmenta printzipioaren** aspektu « filosofikoa » edo herriko politikaz eztabaidatuz eta finantza batzordeak, salmenten prezioa eta modalitateez. Oposizioa ez da hor zuen egitasmoei beti oposizioa egiteko baina hor da ere ziburutar ondarearen salmenta bezain garrantzitsua den gai batez, eta, preseski, hemen, arrantza sarearen interesaz eztabaidatzeko.*

*Ez gira hemen 2010eko aitzinkontua salbatzeko (biziki epe laburreko ikuspegia), baina dozierra(k) epe luzera ere aztertzen d(it)ugu. Gure asmoa zen barne eztabaida bat eramatea kanpoari aurre egin aitzin, eta hau garrantzitsuagoa iruditzen zitzaigun.*

*Herriko jabetza hau CCI/MIG-ari saltzearen kontra gaude eta hona gure argudioak:*

- 1. Deliberoa irakurtzean, badirudi ez duela gehiago 64 KO-ak eraikin hau erosten. Haien erabakiaren kopia bat ukan genezakea?*
- 2. Badirudi 64 KO-ak ez duela Ziburu herriaren partetik eskakizun ofizialik ukan.*
- 3. CCI-k, Récollets-etako zati bat erosten balu, Donibane-Ziburu herrien arteko Sindikatu 64 KO eta Ziburu herriarekin jadanik partekatu esparruan sartua den egitura berri bat izan*

*genezake. Jadanik pleñitzen zarete Sokoia gunearen kudeaketak dakartzan zailtasunez eta gaur, petto berdina errepikatzen duzue.*

- 4. CCI-ren xedea dea jabe bilakatzea, haren higiezin ondarea aberastea? Eta zergatik behar du jabe izan? Badakigu laster CCI-k eskualde mailara pasatuko direla, orduan arreguratuak gira eraikin honen bilakaeraz.*
- 5. Baionako CCI kontzesionarioa da 2026 arte, eta ondotik, zer gertatuko da ez badu gehiago Ziburuko portua kudeatzen, edo ez duelako bere kontzesio eskaera berrituko, edo gauzak bestelakotu daitezkeelako, besteak beste arrantza portuaren etorkizunari dagokionez. Honen helburuaz duzun klausula ez da gehiago aplikatua eta aplikagarria izaten ahalko.*
- 6. CCI berriz salduko balu, ez da inolako bermerik aurreikusirik hiriak edo 64 KO-ak Eremuen prezioan erosteko. Lehentasunez erosteko eskubidea aipatu diguzu, baina horretarako ahalik izanen duguia?*
- 7. Gainera, zenbateko alokairua aplikatuko dio CCI-k arrantza sareari? Prezio publikoak izanen direa???, gaur egun aplikatzen dituzuenak bezalakoak (2012ko urtarrila arte, akura luzagarriarekin) ?? ez zaigu hala iruditzen.*

*Auzapez jauna, gaur sare guzi hau babesten duzu, aterbetzea prezio publikoetan eskainiz bederen. Erraten diguzu zure kontu administratiboari pentsatzen duzula... Erraten diguzu asurantzako dirua (milioi 1 euro) ... inbertitua izan behar dela. Horra zoin diren elkartasunari ematen dizkiozun mugak.*

*Guk pentsatzen dugu portuko eraikina zaharkitua dela eta izotz-guneen gaineko izugarriko esparrua berregituratua izan daitekeela portua eta arrantzaleen onerako. Portua gaur egun gaindimentsionatua da eta bere lokalen birmoldatzeari egokitu behar diola. CCI-k gai hau aztertu beharko luke gehiago.*

*Portua eta honen arrantzaleen interesan zentratu zinezko borondate politikoak lioke etorkizun bat eskainiko. »*

DUGUET Anderearen mintzaldi luze honi erantzuteko, Auzapez Jaunak ohartarazten du salmenta hau Finantza Batzordean aurkeztua izan dela. Zehazten du ere aspalditik eraikin hau igurikatzen duten arrantzaleak lagundu nahi dituela Herriko Etxeak eta oraingoan dozier administratiboa arrunt lotua dela.

Bestalde, bilkura ainitz iragan direla berresten du, batez ere arrantzaleekin, Su-prefeturarekin eta Kontseilu Orokorrarekin, azken honek erakutsi duelarik, herriko jabetza hau erdietsi nahi duela.

Auzapez Jaunak zehazten du bestalde, 2007ko uztailleko sutearen ondorioz, C.C.I.k dituela kalte-ordainak eskuratu (milioi 1 euro). « Bidezkoa dirudi Merkataritza eta Industria Ganbarak Kontseilu Orokorra ordezkatzea. »

Nehork ez daki nolakoa izanen den tokiko arrantzaren geroa, baina denek parioa egiten dugu beti arrantza portu bat izanen dela ZIBURUn.

ANIDO Jaunak, Portuko Kontseiluko kide gisa gehitzen du Arrantzaleen Sindikatua eraikina erostekotan zela 2011n berean eta ongi errana izan dela Finantza Batzordean C.C.I.-k ez ziola eraikin hau beste bati saltzen ahal.

MINTEGUI Jaunak dio C.C.I. gaur egun Kontseilu Orokorreko lurren kontzesionarioa zela. Ez du ulertzen zergatik beste jabe bat gehi behar litzatekeen, honek zailtasun gehiago ekarriko lituzkeelako.

Portua Estatuaren itsas eremuko da, eta honek Kontseilu Orokorri uzten dio. Zergatik ez berari saldu beraz?

DUGUET Andereak gehitzen du C.C.I.-k frogatu duela ez zuela bere kontzesionario eginbeharra betetzen.

ANIDO Jaunak erantzuten du, alderantzizkoa dela eta C.C.I. beti ongi arduratu dela arrantzaz.

Auzapez Jaunak oposizioak adierazi oharren akta hartzen du baina azpimarratzen du Herriko Kontseiluko dozierra gibelatua balitz, gure partaideek (C.C.I., Eremuen Administrazioa, Kontseilu Orokorra, Arrantzen Tokiko Batzordea, Kontseilu Orokorra, Prefetura) ez luketela ZIBURU herriaren jarrera ulertuko, dozierra aitzina eramaten entseatu delarik beti.

## **II/ Finantzako gaiak**

### **1) Ziburu/Senpereko Tenis kluba: Diru-laguntza eskaera**

#### **Txostengilea: LOLOM jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Ziburu / Senpereko Tenis Klubaren partetik diru-laguntza eskaera bat etorri zaiola, lurrezko zelai estalia berritu eta segurtatzeko.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, Auzapez Jaunak proposatzen du elkarte honi 2 900 euroko diru-laguntza bat eskaintzea.

#### **Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:**

- 2 900 euroko diru-laguntza Ziburu / Senpereko Tenis Klubari eskaintzea  
**ERABAKITZEN DU.**

#### **OHARRAK:**

DUGUET Anderea:

« Prentsaren bidez jakiten dugu EHHHE-k erosiko dukeela ofiziale eremu ttipi bat plantatzeko. Horrek zure kutzak beteko ditu funtsik gabeko erosketa baten ondorioz baina zer bilakatuko dira tenis estaliak? Nola antolatua da Kirol Zelaiako lur-zatien zaintza ? »

Auzapez Jaunak erantzuten du proiektua aztertzen ari direla Herri Elkargoan, ofiziale eremu baten antolaketari dagokionez. Bestalde, dena egina izanen da tenis estaliak berriz eraikitzeke kirol zelaietan.

**AHO BATEZ ONARTUA**

## 2) UR YOKO: 2010 urterako diru-laguntza eskaera

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die diru-laguntza eskaera bat etorri zaiola UR YOKO elkartearen partetik, arrauna praktikatzeko (erreka eta itsasoan) aisialdi edo lehiaketetan parte hartzeko.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia ondoz, Auzapez Jaunak proposatzen du elkarte honi 1 800 euroko diru-laguntza bat eskaintzea.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 1 800 euroko diru-laguntza UR YOKO elkarteari eskaintzea **ERABAKITZEN DU**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

## 3) Donibane Lohizuneko turismo bulegoa: Diru-laguntza eskaera

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die diru-laguntza eskaera bat etorri zaiola Donibane Lohizuneko turismo bulegotik, Luis XIV-ren ezteia 350 urtebetetzearen ospakizuna antolatzeko, jakinez Koru Kanta festibalari usaian eskainia den diru-laguntza eskaerarik ez dela izan 2010 urtean.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia ondoz, Auzapez Jaunak proposatzen du elkarte honi 3 000 euroko diru-laguntza bat eskaintzea.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 3 000 euroko diru-laguntza Donibane Lohizuneko turismo bulegoari eskaintzea **ERABAKITZEN DU**.

MADRID Jaunak ez dio interes izpirik ikusten ospakizun honi.

MADRID Jaunak kontra bozkatzen du eta MINTEGUI Jauna eta TAPIA Anderea abstenitzen dira.

**ONARTUA**

## 4) Integrazio Batzordea : Diru-laguntza eskaera

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die diru-laguntza eskaera bat etorri zaiola, haur elbarrituak ikastoletan eskolatzea eta haien jendarteratzea laguntzea helburu dituen Integrazio Batzordea elkartearen partetik.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, Auzapez Jaunak proposatzen du elkarte honi 200 euroko diru-laguntza bat eskaintzea Ziburuko haur batendako.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 200 euroko diru-laguntza Integrazio Batzordea elkarteari eskaintzea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **5) Liburutegiko obren salmenta: Téléthoni dohaintza**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu, François Rospide Herriko liburutegiko liburu andeatuen salmenta antolatua dela abenduaren 3 eta 4an.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, komenigarria litzateke salmenta honen etekinak téléthon-i ematea.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- salmenta honen etekinak téléthon-i ematea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **6) Auzapezen kongresua: xahutzeen ordainketa.**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak adierazten du Frantziako Auzapezen Kongresuan izan dela joan den azaroaren 23, 24 eta 25ean eta bidai horrekin izan dituen xahutzeak ordaintzea komeni dela, erran nahi baita 670,10 €.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez jaunari, Frantziako Auzapezen Kongresura joateak sortu dituen xahutzeak, 670,10 euro ordaintzea **ERABAKI DU**.

Auzapez Jaunak ez du bozketan parte hartzen.

### **ONARTUA**

## 7) 2010eko martxoaren 20ko udaberriko ibilaldian parte hartzea .

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak, oroitarazten die Herriko Kontseiluko kideei udaberriko ibilaldia 2010eko martxoaren 20an gertatu dela. Ziburuko Besta Komiteak du ekitaldi hori antolatzen eta fresa guziak aitzinatzen ditu parte hartzen duten herriengandik, erran nahi baita DONIBANE LOHIZUN, BIRIATU, HENDAIA, URRUÑA eta ZIBURUrengandik berreskuratu aitzin.

Azken kostua 1 394,94 €-koa da eta herri bakoitzari 278,99 € eskatzen zaio.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia ondoz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 278,99 € Ziburuko Besta Komiteari eskaintzea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

## 8) Onarpena ez balioetan

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak azaltzen du Zerga Etxeko Kontuzainak ez dituela azpi honetako titulu eta sartzeen bilketa lortu ahal izan eta, ondorioz, orotara 821,60 €-ko onarpena ez balioan eskatzen du.

Urtaldia	Tituluaren erreferentzia	Zordunaren deitura	Berreskuratu beharreko diru kopurua	Eskaeraren arrazoina
2004	T-592	MOREL LA CAVE	69,30	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2005	T-293	ARRIBILLAGA STEPHANIE	36,45	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2005	T-541	MARIN JIMENEZ SOPHIE	24,74	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	R-7-46	MARIN JIMENEZ SOPHIE	17,58	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	R-7-63	EME JEAN PHILIPPE	287,21	Aktibo eskasa
2006	R-7-13	DARRONSORO MOCHE MARI	28,00	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	R-7-44	RENAUD STEPHANE	28,00	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	T-142	INTSABY CELINE	27,50	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	T-536	INTSABY CELINE	149,65	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	T-540	MAYOUSSIER PASCAL	50,00	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2006	T-544	DELUC CHRISTELLE	66,04	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2008	R-7-118	MARIN JIMENEZ SOPHIE	18,29	Emaitzarik gabeko akten muntadura
2009	R-7-116	MARIN JIMENEZ SOPHIE	18,84	Emaitzarik gabeko akten muntadura
		<b>OROTARA</b>	<b>821,60</b>	

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- titulu hauen ez balioaren onarpena adieraztea **ERABAKITZEN DU**

### AHO BATEZ ONARTUA

#### 9) Gazte saileko aitzinkontua; 1. erabaki aldatzailea

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die komenigarria litzatekeela ondoko erabaki aldatzailea erabakitzea:

Artikulua	Funtzioa	Izena	Kopurua
<b>Ibilmolde saila</b>			
60623	422	Elikadura	1 400,00
60632	421	Tresn. ttipiko hornikuntzak	- 500,00
6064	421	Hornikuntza administratiboak	400,00
6068	422	Beste materia eta hornikuntzak	- 300,00
611	421	Prest.zerb. emaile. Enp-ekin.	- 5200,00
6135	421	Alokairu higigarriak	1 700,00
6135	422	Alokairu higigarriak	2 500,00
61558	422	Beste horn. konp. artamena	- 2 000,00
616	421	Asurantzak primak	300,00
6182	422	Dokumentazio Oro. eta Tek.	150,00
6184	422	Formakuntza Era.-ei orda.	- 1 000,00
6231	421	Abisu eta iragarkiak	150,00
6232	422	Besta eta ekitaldiak	800,00
6247	422	Garraio kolektiboak	2 450,00
6251	421	Bidaiak eta joan-etorriak	- 500,00
6262	422	Telekomunikazio xahutzeak	- 450,00
6288	421	Kanpoko beste zerb.	5 500,00
6288	422	Kanpoko beste zerb.	20 000,00
<b>Ibilmolde xahutzeak orotara</b>			<b>25 400,00</b>
7067	421	Esk-kanp-Irak-Zerb.Zuz.Red	11 500,00
7474	421	Herriak	-9 655,00
7474	422	Herriak	17 555,00
7478	422	Beste erakundeak	6 000,00
<b>Ibilmolde sartzeak orotara</b>			<b>25 400,00</b>

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- erabaki aldatzailea gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**.

### AHO BATEZ ONARTUA



## 10) Aitzinkontu nagusia: 2. erabaki aldatzailea

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die komenigarria litzatekeela ondoko erabaki aldatzailea erabakitzea:

Artikulua	Funtzioa	Izena	Kopurua
<b>Ibilmolde saila</b>			
60622	810	Erregaiak	2 100,00
6218	020	Kanpoko beste langileak	10 000,00
657363	422	Administrazio izaerakoa	7 900,00
6574	33	Best. lan. pribatu elk. Ibil. diru-lag.	3 000,00
6574	415	Best. lan. pribatu elk. Ibil. diru-lag.	4 700,00
6574	520	Best. lan. pribatu elk. Ibil. diru-lag.	200,00
658	01	Best. lan. pribatu elk. Ibil. diru-lag.	- 7 900,00
<b>Ibilmolde xahutzeak orotara</b>			<b>20 000,00</b>
7381	01	TX.Add.Dr.Mut.Tx.de Pub.Ibil.	20 000,00
<b>Ibilmolde sartzeak orotara</b>			<b>20 000,00</b>

Artikulua	Funtzioa	Izena	Kopurua
<b>Inbestizamendu saila: xahutzeak</b>			
2031	01	Ikerketa xahutzeak	6 000,00
2135	01	Eraikuntzen inst.or.apa.,ant.	- 21 200,00
2188	01	Beste gorputz ibilgetzeak	15 200,00
2313	01	Eraikuntzak	- 13 700,00
2315	01	Instalazioak, material eta tresneria teknikoak	13 700,00
<b>Inbestizamendu saila: Sartzeak</b>			
024		Ibilgetze salmenten etekinak	- 710 000,00
1641	01	Maileguak eurotan	710 000,00

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- erabaki aldatzailea gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**.

DUGUET, BAZERQUE, TAPIA Andereak, MINTEGUI, GOURAUD, MADRID jaunak abstenitzen dira.

### **ONARTUA**

## 11) Inbestizamendu kredituen laurdenaren irekitzea.

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak adierazten hornitzaileak ordaintzen segitzeko 2010 urtaldia eta 2011ko aitzinkontu urtaldiaren artean, komeni dela inbestizamendu xahutze kredituak irekitzea 2011ko urtaldirako.

Indarrean den arautegiari jarraitzeko, kreditu hauek, aitzineko aitzinkontu urtaldian ireki kredituen zenbatekoaren %25ekoa izan behar da, erran nahi baita 3 389 191,48 €-ren %25 = 847 297,87 €.

Auzapez Jaunak inbestizamendu kredituak molde honetan irekitzea proposatzen du:

Artikulua	Funtzioa	Izena	Kopurua
2031	Ikerketa xahutzeak	01	5 000
2135	Instal. orokorrak,eraikuntzen apail..., antol	01	125 000
2138	Beste eraikuntzak	01	20 000
2158	Beste eraikuntzak, material eta tresneria teknikoak	01	20 000
2183	Bulegoko mat eta material informatikoa	01	10 000
2184	Higigarria	01	20 000
2188	Beste gorputz ibilgetzeak	01	5 000
2313	Eraikuntza	01	30 000
2315	Instalazioak, material eta tresneria teknikoak	01	200 000
<b>OROTARA</b>			<b>435 000</b>

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia ondoz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Kredituen laurdena gorago azaldu bezala irekitzea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **12) 2011ko jatorrizko aurrekontua: diru laguntza aurrerakinak.**

##### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Etxeko kideei adierazten die, aitzineko urteetan bezala, Herriko Gizarte Laguntza Zentroak, Turismo Bulegoak eta Besta Komiteak 2011n lortuko duten diru-laguntzatik diruzaintza aurrerakin bat eskatzen dutela.

Auzapez Jaunak ondokoa onartzea proposatzen du:

- o Ziburu Hiriko Gizarte Laguntza Zentroari, 2011n emana izanen zaion diru laguntzatik 50 000 €-ko aurrerakin bat.
- o Ziburuko Turismo Bulegoari, 2011n emana izanen zaion diru laguntzatik 60 000 €-ko aurrerakin bat.
- o Ziburuko Besta Komiteari, 2011n emana izanen zaion diru laguntzatik 30 000 €-ko aurrerakin bat.
- o LUMA elkarteari 2011n emana izanen zaion diru laguntzatik 10 000 €-ko aurrerakin bat.

Auzapez jaunak zehazten du xahutze mailan bezain bat sartzeetako kredituak 2011ko jatorrizko aitzinkontuan sartuak izanen direla ibilmolde sailean.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia ondoz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago azaldu bezala, diru laguntza aurrerakin bat ematea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **13) Leku, bide, iragarki era aparkatze eskubideak:**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 2011ko leku, bide, iragarki era aparkatze eskubideen prezioak delibero honi erantsi taulan azaldu bezala **ONARTZEN DITU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **14) 2011ko herriko prezio orotarikoak**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 2011ko herriko prezio orotarikoak delibero honi erantsi taulan azaldu bezala **ONARTZEN DITU**.

*Oharrak:*

DUGUET Andereak nahi luke enpresa berezitu batek dorrea urtean behin garbi dezan. Auzapez Jaunak baikorki erantzuten du

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **15) Urteko gida praktikoaren tarifa**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei, urteko Gida Praktikoaren argitalpena dela eta inprimategiko xahutzeak arintzeko, argitalpen horretan sartzen diren publizitate esparruak ondoko prezioetan saltzea proposatzen die:

- orri 1/6 : 73 €
- orri 1/3 : 140 €
- orri 2/3 : 275 €
- orri 1 : 420 €

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Gorago zehaztu prezioak **ONARTZEN DITU**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

**16) 2011ko Herriko Aldizkaria : Iragarkien Prezioak.**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak, herriko aldizkariaren argitalpenarekin batera, publikazioetan sartzen diren iragarki esparruak ondoko prezioetan saltzea proposatzen du:

Argitalpen kopurua	Argitalpen 1 urtean	2 argitalpen urtean
<i>Barneko orriak</i>		
<i>orri 1/8</i>	<i>95,00</i>	<i>170,00</i>
<i>orri 1/4</i>	<i>190,00</i>	<i>350,00</i>
<i>orri 1/2</i>	<i>355,00</i>	<i>655,00</i>
<i>orri 1</i>	<i>630,00</i>	<i>1 160,00</i>
<i>Estalgiko AZK</i>		
<i>orri 1/4</i>	<i>265,00</i>	<i>490,00</i>
<i>orri 1/2</i>	<i>428,00</i>	<i>790,00</i>
<i>orri 1</i>	<i>756,00</i>	<i>1 400,00</i>

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago zehaztu prezioak **ONARTZEN DITU**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

## **17) Ostatatzerik gabeko Aisialdi Zentroa : 2011ko prezioak.**

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak 2011 urterako ostatatzerik gabeko aisialdi zentrorako prezioak horrela onartzea proposatzen du:

Egunerako prezioa	2011ko prezioa		
	Haur 1	2 haur	3 haur
Q – 440	8,49	16,12	22,91
Q de 441 à 675	10,27	19,51	27,72
Q de 676 à 875	11,10	21,08	29,96
Q + 875	12,48	23,74	33,72
Ateraldiak ZIBURU eta URRUÑAn	13,87	26,36	37,45
<i>Egun erdirako prezioa apairuarekin</i>	<i>2011ko prezioa</i>		
	<i>Haur 1</i>	<i>2 haur</i>	<i>3 haur</i>
Q – 440	5,01	9,51	13,52
Q de 441 à 675	5,90	11,21	15,93
Q de 676 à 875	6,31	12,00	17,04
Q + 875	7,00	13,45	18,92
Ateraldiak ZIBURU eta URRUÑAn	7,70	14,63	20,79
<i>Egun erdirako prezioa apairuarekin</i>	<i>2011ko prezioa</i>		
	<i>Haur 1</i>	<i>2 haur</i>	<i>3 haur</i>
Q – 440	3,49	6,61	9,39
Q de 441 à 675	4,37	8,30	11,80
Q de 676 à 875	4,78	9,08	12,91
Q + 875	5,48	10,40	14,79
Ateraldiak ZIBURU eta URRUÑAn	6,17	11,73	16,66

Antolatuak diren akanpaldietarako: 10 €-ko gehigarri bat gauka eta haurka.

Profesional diplomatu batzuen presentzia eskatzen duten gazte aretoko aktibitateetarako: 5 €-ko gehigarri bat gauka eta haurka.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago zehaztu prezioak **ONARTZEN DITU**.

**AHO BATEZ ONARTUA**

**18) Eskoletako jantegiak : 2011ko prezioak.**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak proposatzen du eskolako jantegiaren prezioak horrela finkatzea:

Diru sarrera saila etxebizitza fiskalka	<b>2011 urtea + % 2</b>
Ama eskola	
1 €-tik 2 134ra barne	1,94
2 135 €-tik 3 201era barne	2,37
3 202 €-tik 3 903ra barne	2,81
3 904 € eta gehiago	3,22
Lehen maila	
1 €-tik 2 134ra barne	1,94
2 135 €-tik 3 201era barne	2,37
3 202 €-tik 3 903ra barne	2,81
3 964 €-tik 4 877ra barne	3,22
Irakasleak	4,53

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago zehaztu prezioak **ONARTZEN DITU**.

Oharrak:

MADRID Jaunak adierazten du eskoletako jantegien prezio emendatzearen kontra dela.

MADRID Jaunak kontra bozkutzen du.

**ONARTUA**

**19) 2011ko Egonaldi Zergaren prezioak.**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Urte guziz bezala, Auzapez jaunak egonaldi zergaren prezioak finkatzea proposatzen du.

Zehazten du urteko zerga bat dela eta proposatuak diren prezioetan Kontseilu Orokorrari eman behar zaizkion %10ak sartuak direla.

<u>Sailak</u>	<u>Sailkapena</u>	<u>Prezioak</u>
Hotel, Turismo Egoitzak	4 izar	1,10
	3 izar	0,88
	2 izar	0,66
	1 izar	0,55
	0 izar	0,33
Kanpinak, opor herriak, etxeko ostatu ganbarak eta beste		0,33
Villa eta altzarituak	0 izar	0,33
	1 izar	0,55
	2 izar	0,66
	3 izar	0,88
	4 izar	1,10

Prezio hauek ez dira aldatu 2010 urteari konparatuz

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago zehaztu prezioak **ONARTZEN DITU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **20) Haurtzaindegiko prezioak.**

##### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak, etxeko irabaziekin eta haurren kopuruarekin kalkulatu ehunekoan oinarritu familien partehartzearen prezioak aurkezten die Herriko Kontseiluko kideei, azpiko taulan adierazi bezala:

Haur kopurua	Orenko indar tasa
Haur 1	Hilabeteko irabazien % 0,06
2 haur	Hilabeteko irabazien % 0,05
3 haur	Hilabeteko irabazien % 0,04
4 haur	Hilabeteko irabazien % 0,03

Irabazirik ez den kasuan, indar tasa « gutieneko » irabaziak deitu irabazien gutieneko oroharreko prezio batean aplikatzen da indar tasa.

Oroharreko prezio hau, RSA / EIA-ren markoan, bakarrik eta haur batekin bizi den pertsonari bermatu oroharreko zenbatekoari dagokio, eta urte guziz urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 arteko eperako finkatzen du CNAF-ek.

Horrela, 2010 urterako, hilabeteko gutieneko irabaziak hauek dira: 579,72 €.

Auzapez Jaunak zehazten du indar tasaren aplikazioa « gehieneko »-aren gaintik segitzea erabaki dela.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago zehaztu prezioak **ONARTZEN DITU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **21) Hondartzako klubaren prezioa.**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die, bi urteko luzapen eskaera bat helarazia izan zaiola, Sokoia/Untxineko goi parteko lur-zati baten behin-behineko okupaziorako, honen helburua, hondartzako klub baten plantatzea besterik ez delarik. Hitzarmen berria 2011ko ekainaren 1ean indarrean sar daiteke, 2012ko irailaren 30ean bukatzeko.

Auzapez Jaunak proposatzen du 900 €-ko karga bat finkatzea urtean, gehi hondartzako klubaren jardueraren ustiapenak ekartzen dituen ZG-ko sartzeen %5ari dagokion karga bat.

2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago zehaztu prezioa **ONARTZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **22) Hurtzaindegia eta O.G.A.Z: C.E.S.U. (E.T.Z.U.)-ren bitarteko ordainketa**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu azken hilabeteetan, hiriko zerbitzuengana jotzen dutela burasoek, batez ere hurtzaindegi eta aisialdi zentroak, pertsonari zerbitzuak errazteko eraman politikaren kariatara sortuak izan diren enplegu txeke zerbitzu unibertsalak, ordaintzeko molde gisa erabil ditzaten.

Auzapez Jaunak oroitarazten du, 2006/01/01ean sortu ETZU-k, besteak beste erakunde onetsi batek edo harrera kolektiboko egitura batek eskaini prestazio baten fakturak ordaintzeko balio duela. Gure lehen hurtzaroko egituren kasua da: Hurtzaindegiak, aisialdi zentroak.

Bi moldetan deklinatzen da: etxean zuzenean enplegatu langile baten ordaintzeko baizik erabiltzen ez den **bankuko ETZU-a** eta harrera egituren hurren zaintza ordaintzeko erabil daitekeen **ETZU aurrefinantzatu**.

Auzapez Jaunak zehazten du tokiko aginteak arrunt eskudunak direla aurrefinantzatu ETZU hauek ordainketa molde gisa onartzeko ; eta, herriak ordainketa molde hau onartzeak interes handia izan dezakeela administratuentzat, laguntza zuzenak batzutan ordezkatu dituzten txeke hauek lor ditzaketelako haien nagusi eta enpresa komiteengandik.



2010eko abenduaren 8an bildu den Finantza Batzordearen iritzia onduz, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- ZIBURU hiria EZTU-en diru-itzultze zentroan (CRCESU / EZTDZ) afiliatzeko eta horrela diru-itzultze baldintza juridiko eta finantzarioak onartzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.
- hunkituak diren zerbitzuen errejien akta eraikitzaileak **ALDATZEN DITU**,
- errejidoreak aurrefinantzatu ETZUak ordainsari gisa onartzera **GAITZEN DITU**,
- CRCESU-an afiliatu ondoren, aurrefinantzatu ETZU-ak lehen haurtzaroko egituretan: Marie Fleuret haurtzaindegi kolektiboa, Ama Aisialdi Zentroak eta 6/12 urtekoen Aisialdi Zentroak, ordainsari gisa **ONARTZEN DITU**.

Oharrak:

MINTEGUI Jaunak jakin nahi du zenbat koskatuko zaion herriari Erantzuna zaio biziki zaila dela honen estimatzea, erabiliko dituztenen kopurua ezagutu aitzin.

## **AHO BATEZ ONARTUA**

### **III/ Herriko Etxeko langileak**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

#### **1) Gradu Aitzinamendua ratioen zehaztapena**

2007ko otsailaren 19ko 2007-209. legeak 1984ko urtarrilaren 26ko lege 84-53. legearen 49. artikulua aldatu du, gradu aitzinamendu arau berriak indarrean jarritz. Horrela, gradu aitzinamendu ororako, promozio bat lor dezaketen funtzionarioen gehiengoko kopurua, aitzinamendu horren lortzeko baldintzak betetzen dituzten funtzionarioen zenbaki orokorrari aplikatu tasa batek xedatzen du.

Erabilgailu honi « promozioa lortu/lor dezaketenak/ratioa » deitzen zaio.

Herriko Kontseiluak, Pareko Batzorde Teknikoak iritzia eman ondoren, enplegu koadro bakoitzeko gradu bakoitzaren promozio tasa finkatzen du (% 0 eta % 100 artekoa) (polizia agenteena salbu).

Horretarako, Herriko Kontseilua bildu da 2007ko ekainaren 27an, 2007ko abenduaren 12an, 2008ko abenduaren 22an, 2009ko martxoaren 4an eta 2009ko abenduaren 15ean, ratio batzuen finkatzeko.

Hala ere, zerbitzuen antolaketa eta herriaren beharrak ikusirik, komeni da aitzineko deliberoak berriz hartzea eta ondoko moldean osatzea edota aldatzea:

### Administrazioa sarea:

<i>Aitzinamendu gradua</i>	<i>Promozio tasa</i>
Agregatu nagusi	% 100 (2007/06/27ko deliberoa)
Erredaktore buru	% 100 (2009/12/15eko deliberoa )
Erredaktore nagusia	% 100 (2009/03/04ko deliberoa)
1. klaseko administrazio laguntzaile nagusi	% 100 (2007/06/27ko deliberoa)
2. klaseko administrazio laguntzaile nagusi	<b>Proposamena %100etan</b>
1. klaseko administrazio laguntzaile	% 100 (2009/12/15eko deliberoa)

### Teknika sarea:

<i>Aitzinamendu gradua</i>	<i>Promozio tasa</i>
Ingeniari buru	EZ FINKOA
Ingeniari nagusia	% 100 (2008ko abenduaren 22ko deliberoa)
Goi mailako teknikari buru	% 100 (2009ko abenduaren 15eko deliberoa )
Goi mailako teknikari nagusi	% 100 (2007ko ekainaren 27ko deliberoa)
*Obren ikuskatzaile buru	EZ FINKOA
* Obren ikuskatzaile nagusi	EZ FINKOA
Koadro agente nagusia	% 100 (2009ko martxoaren 4ko deliberoa)
1. klaseko laguntzaile tekniko nagusi	% 100 (2009ko martxoaren 4ko deliberoa)
2. klaseko laguntzaile tekniko nagusi	% 50 (2007ko abenduaren 12ko deliberoa) <b>Proposamena %100etan</b>
<b><u>*Obren ikuskatzaile enplegu markoa 2010eko abenduaren 1ean desagertzen da</u></b>	

### Osasuna eta gizartea sarea:

<i>Aitzinamendu gradua</i>	<i>Promozio tasa</i>
2. klaseko haurtzaintza laguntzaile nagusi	<b>Proposamena %100etan</b>

### Animazio sarea:

<i>Aitzinamendu gradua</i>	<i>Promozio tasa</i>
1. klaseko animazio laguntzaile	<b>Proposamena %100etan</b>

2010eko Abenduaren 6an bildu Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia eta 2010eko abenduaren 8an bildu Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 2. klaseko administrazio laguntzaile nagusi, 2. klaseko laguntzaile tekniko nagusi, 2. klaseko haurtzaintza laguntzaile nagusi eta 1. klaseko animazio laguntzaileen aitzinamendu graduatarako promozio tasak % 100etan **FINKATZEN DITU**.

### AHO BATEZ ONARTUA

#### 2) Gradu aitzinamenduak – Postuen bilakaerak

## **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu, agenteen izendatzea burutzeko 2011ko gradu aitzinamendurako, komeni dela iritzi bat ematea enplegu bestelakotzei buruz gradu berriei egokitzeko eta dagozkien beterik gabeko enpleguen aldarrikapenak burutzeko, azpian azaldutakoa segituz:

<b>Aitzineko gradua</b>	<b>Gradu berria</b>
1. klaseko administrazio laguntzaile nagusi	2. klaseko administrazio laguntzaile nagusi
Erredaktore (2)	Erredaktore nagusi (2)
Erredaktore nagusi	Erredaktore buru
2. klaseko laguntzaile tekniko	1. klaseko laguntzaile tekniko
1. klaseko laguntzaile tekniko (2)	2. klaseko laguntzaile tekniko nagusi (2)
2. klaseko laguntzaile tekniko nagusi (5)	1. klaseko laguntzaile tekniko nagusi (5)
Koadro agente	Koadro agente nagusi
2. klaseko animazio laguntzaile	1. klaseko animazio laguntzaile
1. klaseko haurtzaintza laguntzaile	2. klaseko haurtzaintza laguntzaile nagusi

2010eko Abenduaren 6an bildu Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia eta 2010eko abenduaren 8an bildu Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritziaren ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak:

- gorago ikusi enplegu eta plantillako taularen bestelakotzea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **3) Denbora Aurrezpen Kontuaren irekitze, ibilmolde, kudeaketa, erabiltze eta hesteko arauak**

## **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak oroitarazten du lurraldeko langileek, oporretako egun batzuk Denbora Aurrezpen Kontu batean sar ditzaketela, baldintza batzuk betetzen badituzte.

Araudiak marko orokor bat finkatzen du baina erabakitzen duen organoari dagokio Denbora Aurrezpen Kontuaren irekitze, erabiltze eta hesteko modalitateen xehetasunez iriztea.

### **Lor dezaketen agenteak:**

DAK bat irekitzea eska dezakete funtzionario titularrek eta molde iraunkorrean eta zerbitzu urte bat bederen bete duten denbora oso edo denbora ez osoz titularrak ez diren agenteek.

Zerbitzu obligazio sisteman ari diren agenteek ez dezakete Denbora Aurrezpen Kondurik ireki.

### **Aurreztu egunen izaera:**

Denbora Aurrezpen Kondua osa dezakete:

- Urteko opor egunak eta zatikapen egunak: hartu opor egun kopurua 20koa izan behar da bederen,

- Berreskuratze egunak lan denboraren murriztearen izenean,
- Atsedeen konpentsatzaileak emanak lan gehigarrien truke, egun, aste edo urteko lan orduen anplitudeei dagozkien araudia errespetatuz gero.

Orotara, Denbora Aurrezpen Kontu batean bildu egun kopuruak ez du 60 egun gainditu beharko (arautzeak inposatu gehiena).

Denbora Aurrezpen Kontuan egunak sartzeko, agenteak beharko dio lurraldeko aginteari urteko eskakizuna egin, urte zibileko abenduaren 31 aitzin.

### **Denbora Aurrezpen Kontuaren erabilpena:**

Organo deliberatzaileari dagokio DAK batean idatzi egunen monetizazioaren printzipioaz iriztea. DAK bat duten agentei beste erabilpen opzio batzuk (opor egun formako erabilpenaren gain) irekiko dizkien printzipio hau atxikitzea proposatua zaie 20 egun baino gehiago aurreztu badute DAK-ean eta 20tik goiti aurreztu egunentzat bakarrik.

Agenteak eska dezake ere:

- Sari konpentsatzaile bat ematea, ministerioko agindu batek finkatu tasa batzuen arabera, hauek aldagarriak izanki agentearen hierarkia kategoriaren arabera; eguneroko sariaren zenbateko gordina horrela ezarria da gaur egun:

<i>Saila</i>	<i>Eguneko zenbateko gordina</i>
A	125,00 €
B	80,00 €
C	65,00 €

Opzio hau langile guzietan irekia izanen da.

- Aurreztu egunen balio bereko dirua funtzio publikoko erretreta erregimenari (RAFP) ordaintzea. Opzio hau, CNRACL-ean afiliatuak diren funtzionarioei baizik ez dagokie.

Haren Denbora Aurrezpen Kontuan aurreztuak diren egun batzuk erabili nahi dituen agenteak lurraldeko aginteari hilabete bateko epean eskatu beharko dio.

Lurraldeko agenteak agentea informatu beharko du Denbora Aurrezpen Kontuaren irekitzeaz bai eta honen urteko bilakaeraz.

### **2009ko abenduaren 31n aurreztu egunen erabilpenaren modalitateak:**

Monetizazio printzipioa onartua bada, organo erabiltzaileak, 2009ko abenduaren 31n indarrean den DAK-en diruzko konpentsazioen modalitatez iritzia behar du. Diru isurtzea 4 urteko garaian heda daiteke.

2010eko Abenduaren 6an bildu Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia eta 2010eko abenduaren 8an bildu Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak:

- 2009ko abenduaren 31n indarrean dauden DAK-en diruzko konpentsazioen modalitateak **ONARTZEN DITU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **4) Enplegu lagundu baten sortzea**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu liburutegiko langile postu bat irekitzea proposatua dela Enpleguan Laguntza Kontratua erabilgailuaren bidez, 2010eko urriaren 1etik goiti, 20 orenez astean. Agente hau Zerbitzuen Zuzendaritza Orokorraren agindupean ezarria izanen da eta Zerbitzuen Zuzendariordeak kudeatuko du.

Kontratu lagundu bat da, tokiko aginteei erreserbatua, lanik ez duten jendeentzat. 6 hilabeteko iraupena duen kontratu hau erreberritzen ahal da.

2010eko Abenduaren 6an bildu Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia eta 2010eko abenduaren 8an bildu Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak:

- POLE EMPLOIrekin interesatua denbora ez osoz, 20 orenez astean, 6 hilabetez eta erreberritu daitekeen kontratatuzeko hitzarmena izenpetzea **ERABAKITZEN DU**.
- Auzapez Jaunari delako hitzarmena izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **5) Herriko haurtzaindegia – Mediku koordinatzailearen lanaldiak**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu haur gaztearen harrera guneetan pediatrian berezitua edo kalifikatua den mediku bat badagoela edo, halakorik ez delarik, pediatrian esperientzia berezi bat duen mediku orokor bat.

Auzapez Jaunak zehazten du mediku honek, besteak beste, higie orokorrerako prebentzio neurriak eta eritasun kutsakor edo epidemia bat gertatzen balitz hartu behar neurrien aplikazioaz arduratzen dela eta osasunera heziketa eta sustapen ekintzak langileengan segurtatzen dituela.

Eginkizun hau betetzeko gisan, Auzapez Jaunak adierazten du kargu hau beregain hartuko duen medikuaren esku hartze eta ordainketa modalitateak zehaztu behar direla, haren lanaldien baitan.

Auzapez Jaunak zehazten du eginkizun honen betetzeko medikua hilabetean oren 1 eta erdiz esku hartzera deitua izanen dela.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez Jauna, gorago zehaztu eginkizunez arduratuko den mediku bat ordari gisa kontratatzen **BAIMENTZEN DU**,
- ordainketa gordina lanaldika (oren 1) 43 eurotan **FINKATZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **6) Herriko haurtzaindegia – Pedopsikiatraren lanaldiak**

##### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak abisatzen du herriko haurtzaindegiko zerbitzuek pedopsikiatra baten esku hartzea eskatu dutela 2007an. Pedopsikiatra haurtzaro eta nerabetasunaren nahasmenduetan aditua da: hizkuntzaren nahasmenduak, hiperaktibitatea, nahasmendu obsesional konpulsiboak, autismoa... Aditu honek gurasoak gidatzen ahal ditu bai eta aholkuak eman ager daitezkeen zailtasun puntualetan ere.

Eginkizun honen betetzeko, Auzapez Jaunak adierazten du kargu honetaz arduratu beharko duen medikuaren esku hartze eta ordaintze modalitateak zehaztea komeni dela, haren lanaldien markoan.

Auzapez Jaunak zehazten du eginkizun honen betetzeko medikuak hilabetean 3 orenez esku hartu beharko duela.

##### Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez Jauna, pedopsikiatra bat ordari gisa berriz kontratatzen **BAIMENTZEN DU**,

ordainketa gordina lanaldika (oren 1) 49 eurotan **FINKATZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

## 7) Zentsurako agente kontratatzea.

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die hurbileko demokrasiari buruzko 2002ko otsailaren 27ko 2002-276. Legeak, eta besteak beste haren V tituluak herriei ematen diela biztanleriaren zentsua burutzeko baimena.

Eginkizun honen betetzeko, Auzapez Jaunak denbora osoko behin-behineko agente zentsutzaile enpleguak sortzea proposatzen du, lurraldeko funtzio publikoari buruzko 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53. legearen 3. artikulua 2. alinearen arabera.

Asteko lan denbora 35 orenetan finkatua da. Enplegu hauei funtzio publikoko 297 indize gordinaren balioari dagokion ordainketa ezar liezaizkieke.

Auzapez Jaunak oroitarazten du, 2010eko agorrilaren 26ko deliberoaren ondorioz, Herriko Kontseiluak denbora osoko behin-behineko agente zentsutzaile 12 enplegu sortzea erabaki zuela. Alta, INSEEk arduradunek Ziburu herriari aholkatu diote 16 eta 20 enplegu artean sortzea eta ez 12 hastapenean aurreikusi bezala.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- denbora osoko behin-behineko 12 agente zentsutzaile enplegu sortzea aurreikusten duen 2010eko agorrilaren 26ko deliberoa **EZEZTATZEN DU**.
- denbora osoko behin-behineko agente zentsutzaile 20 enplegu gehienik sortzea **ERABAKITZEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

### **IV / Zerbitzu teknikoak**

#### **1) Merkatu publikoa: Deialdi publikoa herriko bideen konponketarako 2009tik 2011ra**

### **Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu, 2010eko abenduaren 7ko Dei Publikoetako Batzordearen aldeko iritzia ondorioz, 2009tik 2011rako herriko bideen konponketari dagokion merkatuak, 2009ko apirilaren 29ko Herriko Kontseiluak onartua, xehetasunak behar dituela aplikazio datei buruz, 4 lote bildu eta 3 urtez iraun behar lukeen manatze bono merkatu hau urte lerrakorrean itzultzeko gisan.

Alabaina, Diruzaintza Nagusiak merkatuan aurkeztu testuen duen interpretazioa helarazi digu, honen bidez urte zibila kontsideratzera, (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra), zehaztasun berezirik gabe, eta beraz aplikazioa urteroko abenduaren 31ra mugatzera eramaten du.

Horrela, Herriko Kontseiluari proposatzen zaio manatze bonoko burutze datei buruzko zehaztasunak urte lerrakor gisa eta ez urte zibila bezala onartzea, honi esker, gutieneko eta

gehiengoko zenbatekoen atondoak apirilaren 30etik ondoko urteko apirilaren 29rako garaientzat aplikatzen ahalko dira (2009ko apirila merkatu prezioen finkatze hilabetea izanki), merkatuaren bukaera 2012ko apirilaren 29ra eramanez, eta ez 2011ko abenduaren 31ra.

Euri Uren sareak hunkitzen dituen merkatu honen 4. Loteari dagokionez, eta 2009ko azaroaren 29ko Donibane Lohizune eta Ziburuko Badiako Herrien arteko Sindikatuari gaitasunaren transferentzia (Prefeturako agindua) kontsideratuz, honen egintza 2010eko otsailaren 25ean bukatzea beharrezkoa da (transferentzia aitzin manatu azken lanak). Data honek, 2009ko urriaren 12ko azken manatzearen egintza eta Donibane Lohizune eta Ziburuko Badiako Herrien arteko Sindikatuari transferitu aitzin egina izan dena, baina 2010eko otsailaren 25a aitzin bukatua izan dena kondutan hartzen du.

Azalpen honen ondotik, eta 2010eko abenduaren 7an bildu den Dei Publikoetako Batzordeak aho batez hartu aldeko iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak:

- manatze bonoko merkatuaren datak 2009ko apirilaren 30etik 2012ko apirilaren 29ra finkatu eta 4. lotearen betearazpena hestean duen urte lerrakor gisako betearazpen datei buurrizko zehaztasunak **ONESTEN DITU**,
- Auzapez Jaunari, erabaki hauei eta merkatuari dagozkion piezak izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **2) Ziburuko Herria/ Ithurri Alde SCI trukaketa**

**Txostengilea: LOLOM Jauna**

Auzapez Jaunak oroitarazten du Herriko Kontseiluak, 2007ko abenduaren 12an, onartu zuela Ziburu herriak lur zati bat André Sardigne Jaunari saltzea eta honen m<sup>2</sup>aren prezioa 4 eurotan finkatzea.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Donibane Lohizunen notarioa den Maître Paolik gutun bat igorri diola, delibero honen zuzenketa bat eskatzeko.

Alabaina, ez da hemen salmenta simple bat, baina lur trukaketa bat Ithurri Alde SCI eta Ziburu herriaren artean, Donibane Lohizunen geometroa den Christophe Jacques Jaunak burutu planoan agertu eta ondotik zehaztua den bezala:

- Ziburu herriak Ithurri Alde SCi, 318 m<sup>2</sup>ko azalera duen 601. AM zati kalastratuaren lagapena,
- Ithurri Alde SCi, Ziburu herriari 4 m<sup>2</sup>ko azalera duen 600. AM zati kalastratuaren lagapena.

2007ko abenduaren 12ko deliberoak m<sup>2</sup>aren prezioa 4 eurotan finkatu ondoren, Ithurri Alde SCi 1 256 euroko sulte bat eman beharko dio Ziburu herriari, 601. AM zatia (1 272 euro) eta 600. AM zatia (16 euro) arteko balioaren diferentziari dagokio.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak:

- Ziburu herria eta André Sardigne Jaun gerenteak ordezkatzeko duen Ithurri Alde SCi arteko lur trukaketa gorago azaldu bezala **ERABAKITZEN DU**,



- Ithurri Alde SCIk 1 256 euroko soulte bat Ziburu herriari ematea **ONARTZEN DU**,
- Maître PAOLIren bulegoa, trukatze akta hori eta honi dagozkion dokumentu guziak, idazteko **IZENDATZEN DU**,
- Auzapez jauna trukaketa akta honen izenpetzea **BAIMENTZEN DU**,
- Dozier honi lotuak diren geometro eta notario fresak Ithurri Alde SCIren gain gelditzen direla **ZEHAZTEN DU**.

### **AHO BATEZ ONARTUA**

#### **IV Orotariko gaiak**

DUGUET Andereak ondoko hiru galderak irakurtzen ditu:

##### 1) Hurbileko demokrazia

« Auzapez jauna,

*Hurbileko demokraziari dagokionez, barne araudian azaldu bezala, CGCT-ren L2121-21-1 artikuluari jarraikiz, espazio bat eskainia da gehiengoaren partaide ez diren herriko hautetsiek adierazpenak egiteko.*

*Auzapez Jauna, ezin duzu, **nehola ere**, espazio hau erabili oposizioko hautetsiek garatu gai bati buruz zure iritzia emateko, iruditzen bazaizu ere delako gaiak ez duela Ziburuko eremua hunkitzen. Oroitarazi behar dizuguia 2009ko agorrilaren 4ko herriko kontseiluan galdegin diguzula Ziburu ez ezik, **Euskal Herriko lurraldea** hunkitzen zuen gai bati (LGV/AHL) buruz gure iritzia ematea. Galdegin genizun galdera hau gai ordenatik ateratzea baina ez duzu onartu. Ezin dira gaiak molde desberdinez kudeatu, bai zure aldetik eta bai gure aldetik ere.*

*Gainera, ez gaituzu jakinean atxiki zure azken erabakiaz, nahiz eta guk hala eskatu eta nik hori hainbat eta hainbat aldiz herriko zerbitzuei galdegin.*

*Gainera, nahiz eta hor ere, guk galdegin, ez dugu ere gure artikulua burutzeko (informatikako) karaktere kopurua lortu.*

*Ez dugu batere preziatu **azken 2 urte hauetan atera den herriko aldizkari bakarrean** inposatu zentsura.*

*Engoitik, oposizioko hautetsien adierazpenak errespetatzea galdegiten dizugu, nahiz eta zuk hori gustukoa ez izan, legeak denentzat berdina izan behar duelako.*

*Eta bukatzeko, gaitzena da delako aldizkariaren editorialean, zure iritzia ematen duzula « hego mendebaldeko egitasmo handi honetaz (AHL) » gure adierazpen eskubidea zangopilatua delarik. Gure taldea 2 entitatez osatua bada ere, espazio hau nahi dugun bezala erabiltzen dugu. »*

## 2) Denak batean

*« Elkarte eta beste egitura kopuru handi bat erregulariki biltzen ziren eraikin horretan bilkurak egiteko eta hauetarik batzuk haien egoitza hor zuten. Nola aurreikusten duzu eraikin honen geroa? ».*

Auzapez Jaunak adierazten du herriko zerbitzu teknikoei eskainia izanen dela. Bilkura gelak erabiltzen zituzten elkarteei « egoitza » berri bat eskainiko zaie Bolero eraikinean.

## 3) Bideetako segurtasuna

*« Jean Jaurès etorbidean, azken hiruhile honetan, 2 istripu gertatu dira. Oro har, orotara, 4 heriotza eta berrogoi bat kolpatu, batzuk larriki, hamar urtez. Iraila bukaera, urria hastapenean, Jean Jaurès etorbideko 600 bizilagunek izenpetu petizio bat helarazia izan zaizu.*

*Nahi ginuke, okindegiaren mailan, oinezkoek kudea dezaketen su bat ezarria izan dadin. Badakigu hori pentsatua duzula (abenduarien 13ko auzotegi bilkura) eta jakin nahi ginuke zertan den arazoa eta zure zerbitzuak noiz hurbildu zaizkion KOri, toki horrek aurkezten dituen lanjerrei ahal bezain fite erantzun bat atzemateko, bai eta okindegiaren etorkizun ilunari. »*

Auzapez Jaunak adierazten du bidegurutzea suekin berriz apailatzeko ikerketa bat egiten dela, oinezkoen segurtasuna, besteak beste, bermatzeko.

Saioa 20:00etan bukatu da.